



INFORMAZIO PUBLIKOA EMATEKO PREZIO PUBLIKOAK FINKATZEN DITUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUARI BURUZKO AURRETIAZKO KONTSULTA.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkartasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) ordezeko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, informazio publikoa emateko prezio publikoen arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkartasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2017ko ekainaren 19ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauak, tasa eta prezio publikoei buruzkoak, 24. artikuluan xedatzen duenez, zuzenbide publikoko arabidean jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak emateagatik prezio publikoak ezar daitezke, baldin eta dena delako jarduera edo zerbitzua borondatez eskatzen bada, edota sektore pribatuak egiten edo ematen badu.
--------------------	---



<p>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</p>	<p>Informazio publikoa jasotzeko eskubidea baliatzen denean, kopiak doakoak izanez gero, gerta liteke euskarriak neurririk gabe erreproduzitzea eta are zenbait dokumenturen osotasuna arriskuan jartzea; horrelako ondorioak saihestearren, bada, informazio publikoa emateagatik ordaindu beharreko prezioen finkapena arautu nahi da, eta araua izapidetu aurretik kontsulta publiko hau egingo da.</p>
<p>ONARTU NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA</p>	<p>Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzearen eta gobernu onarenak, errespetatu egiten du abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzearen eta gobernu onarenak, oinarritzko arau gisa ezarritakoa, eta 36.4 artikuluan xedatzen du benetako kostua gaindituko ez duen diru kopuru bat ordainaraz daitekeela, informazioa emateko dokumentuen kopiak igortzen direnean edo dokumentu bat jatorrizko formatutik beste batera aldatzen denean.</p> <p>Hala, bada, zenbait kostu arrazionalizatu eta herritarren jokabide arduratsua sustatze aldera, komenigarritzat jotzen da eragindako gastuak jasanaraztea informazio publikoa erreproduzitzen eta postaz igortzen denean CD edo DVD formatuan, edo kopien kopuruak muga jakin bat gainditzen duenean; hori guztia, inoiz ahaztu gabe kasu guztietan salbuetsita egongo dela informazioa bide telematikotik igortzea.</p>



HELBURUAK	<p>Informazio publikoa zenbait euskarritan emateagatik ordaindu behar diren prezio publikoak finkatzea, xede hauek lortzeko:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Informazioa emateak sortzen dituen kostuak eskatzaileei jasanaraztea.b) Administrazio elektronikoaren baliabideak sustatzea.c) Herritarrei jokabide arduratsua harraraztea.
ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK	<p>Azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauak, tasa eta prezio publikoei buruzkoak, xedatzen duenez, arau baten babesa behar da prezio publikoen zenbatekoa ezarri edo aldatu ahal izateko, alegia, Arabako Foru Aldundiak xedapen bat egin behar du horretarako; beraz, proposatutako aukera jotzen da egokientzat helburua betetzeko.</p>